

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Administrazioarekiko 157/2016 auzi prozeduran agertzeko epatzea

Erriberagoitiko Udalak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta berariaz horretarako egindako bilkuran, erabaki zuen Gasteizko administrazioarekiko auzietarako 3. epaitegira bidaltzea estatuko abokatuak jarritako errekurtsio batean eskatutako administrazio espedientea. Estatuko abokatuak errekurtsio hori jarri zuen Erriberagoitiko Udalbatzak 2016ko apirilaren 7ko bilkuran hartutako erabaki baten aurka (XI. puntua), zeinaren bidez modernizazio eta produktibitate funts bat gaitzen baita oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata masaren ehuneko 0,6ri dagokiona, bat eginez Euskadiko Udalen Elkarrekin (EUDEL) 2015eko abenduaren 10ean UDALHITZ negoziazio kolektiboa dela-eta egindako gomendioarekin.

Eta hori iragarki honen bidez jakinarazten zaie espedientean interesa izan lezaketenei eta, halaber, jakinarazten zaie 9 (bederatzi) egun dituztela iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aipatutako epaitegian agertzeko, beren legezko interesak aldezteko.

Erriberagoitia, 2016ko irailaren 14a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ